

# EUSKADI

## BASQUE COUNTRY



# PRESTATU

Merkaturatze Plana lantzeko laguntzen programa

1. Informazio orokorra
2. Aholkularitza zerbitzua
3. Parte hartzeko baldintzak
4. Aholkularitzaren kostua

IZENA EMATE FORMULARIOA



LANDA, ITSASERTZ ETA ELIKAGAIEN SUSTAPENA  
DESARROLLO RURAL, LITORAL Y ALIMENTARIO



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN  
ETA AZPIEGITURA SAILA  
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO  
ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS

# PRESTATU

Merkaturatze  
Plana lantzeko  
laguntzen programa

## INFORMAZIO Orokorra

**PRESTATU** laguntza programa bat da, produktuak merkatu nazional eta internazionalan merkatu-  
ratzeko plan bat garatzeko.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailak programa hau martxan jarri du  
nekazaritza eta elikagaien euskal enpresa txiki eta ertainek negozioa sortu eta merkatuak garatzen  
laguntzeko. Izan ere, ekinbide horiek Euskadi 2020 Gastronomia eta Elikaduraren Planaren  
barrukoak dira.

**Programaren iraupena:** lote bakoitzari esleitutako aurrekontua agortu arte. Aurrekontua ez bada  
agortzen, programak bi urteko iraupena izango du. Lote bakoitza EAEko probintzia bati dagokio.

**Norentzat:** EAEko nekazaritzako elikagaien Enpresa Txiki eta Ertainak eta mikroETEak.

**Izena emateko epea:** esleitutako aurrekontua agortzen denean amaituko da.

### INFORMAZIO GEHIAGO

Eneke Larrakoetxea

Emaila: [elarrako@hazi.eus](mailto:elarrako@hazi.eus)

Tfnoa: 946 03 03 30

# PRESTATU

## Merkaturatze Plana lantzeko laguntzen programa

### AHOLKULARITZA zerbitzua

---

Lana **aholkularitza enpresa jakin batek** egingo du, zerbitzua eskatu duen enpresaren lurraldearen arabera.

Aholkularitza enpresa hautatzeko **lizitazio publikoko prozesu bat** egin da, eta zerbitzuak loteetan banatu ziren, enpresen esparru geografikoaren arabera. Emaitza honako hau izan zen:

- **Foodiz Estrategia Alimentaria S.L.** enpresak Gipuzkoa eta Arabako enpresentzako aholkularitza zerbitzuak egingo ditu.
- **Bilboko Merkataritza Ganbera** arduratuko da Bizkaiko enpresentzako aholkularitza zerbitzuak egiteaz.

Aholkularitza bakoitzaren zerbitzua pertsonalizatua izango da, eta 6-8 aste iraungo du, merkaturatze plana lortu arte.

Aholkularitza enpresa bakoitza jarriko da harremanetan eskatzaileekin, lanerako agendarik onena zehazteko.

# PRESTATU

## Merkaturatze Plana lantzeko laguntzen programa

### Parte hartzeko BALDINTZAK

Laguntza programa hau EAEko nekazaritzako elikagaien ETE-ei eta MikroETE-ei zuzenduta dago. **Merkatu berriak landu** nahi dituzten enpresak dira, eta laguntza behar dutenak, **hori nola egin** eta egiteko baldintzak betetzen dituzten jakiteko, enpresa bakoitzaren beharren eta gaitasunen arabera.

Enpresa eskatzaileek onartzen dute merkaturatze planaren kopia bat HAZI Fundazioari ematea, zeinak, aurrez, **konfidentzialtasun agiri bat** sinatuko baitu, eta konpromisoa hartuko baitu enpresen planetan dagoen informazioa ez zabaltzeko. HAZI Fundazioak dokumentu hori edukitzearen helburu bakarra da beharrezko informazioa edukitzea urteko promozio planak prestatzeko eta, horrela, enpresei zerbitzu hobea eskaini ahal izateko, enpresei egiazki interesatzen zaienerako egokia.

Ezinbesteko baldintzak dira:

- EAEko Enpresa Txiki eta Ertaina edo MikroETEA izatea
- IFK zenbakia EAEkoa izatea
- Nekazaritza eta Elikadurako Industrien Erregistroan izena emanda egotea

Aurrekontuan sartzen direnak baino eskari gehiago egonez gero, HAZIk eskubidea erreserbatzen du eskariak onartzeko baldintzak ezartzeko.

# PRESTATU


Merkaturatze  
Plana lantzeko  
laguntzen programa

## Aholkularitzaren KOSTUA

Enpresei emandako aholkularitza bakoitzaren kostua izango da **1.000 € + %21 BEZ= 1.210 €**.

Aholkularitza prozesua hasteko **NAHITAEZKO BALDINTZA** izango da adierazitako zenbateko osoa ordaintzea, eta izena emateko formularioa betetzea. Une horretatik aurrera, jasotako eskariak baloratuko dira, eta Hazik jakinaraziko dio enpresari bere eskaria onartu den. Momentu horretatik aurrera, eskaria baztertu bada, ordaindutako zenbatekoa itzuliko da, eta, onartu bada, dagokion aholkularitza enpresa harremanetan jarriko da enpresa eskatzailearekin.

**GOGOAN IZAN**, zuen eskaera kontuan hartzeko, hau egin behar duzue:

1. **IZENA EMATE FORMULARIOA**  bete.
2. Bidali **izena emateko kuotaren ordainagiria**. Ordainketa baku transferentzia bidez egingo da:

Kontzeptua: “**Enpresaren izena + PRESTATU**”

Kontu zenbakia: **ES49-3035-0179-61-1791069900 HAZI Fundazioaren izenean (Laboral Kutxa)**

**Laboral Kutxaren Bic: CLPEES2MXXX.**

Parte hartu nahi baduzu, eta **leku kopurua mugatua denez**, gomendatzen dugu lehenbailehen izena emateko formularioa betetzea eta ordainagiria bidaltzea [elarrako@hazi.eus](mailto:elarrako@hazi.eus) helbidera.